

1993ko MARTXOAREN 26ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatzehun eta laurogeitamahiruko martxoaren hogeitaseiean, ilunabarreko zortziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia. Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea Udalkideak, nahiz eta jakinean egon, ez dira agertu eta ez dute inolako arrazoirik eman. Besteak, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Idazkariak, aurreko saioen aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

LUBIZIAK KONPONTZEKO ADJUDIKAZIOA

1.992 urteko urrian izandako euriteak, Juan-Miguel Txikira eta Zakar Baserrietara doazten pistetan sortutako kalteak direla eta, Gipuzkoako Foru Aldundiako Teknikariak eginiko balorazioen arabera, pistak konpontzeko Foru Aldundi horrek, kostoaren 50%eko diru-laguntza emango du.

Horren arabera, hiru etxeei eskatu zaizkie pisten konponketarako aurrekontuak.

EXCAVACIONES ORUEZABAL

EXCAVACIONES J. ARROSPIDE

EXCAVACIONES TEIDE

Hiru hoietatik bik bakarrik aurkeztu dituzte beren aurrekontuak:

EXCAVACIONES ORUEZABAL: 792.350,- Pezta

Zakar Baserria	208.725,-	
Juan Migel Txiki	583.625,-	
EXCAVACIONES J. ARROSPIDE:		1.083.864,- Pezta
Zakar Baserria	377.200,-	
Juan Migel Txiki	706.664,-	

Horren arabera, Lubizien konponketa, Excavaciones Oruezabal-i, 792.350,- peztatan adjudikatzea aho batez onartu da.

Aurrekontuaren likidazioa, benetan ateratzen diren, Ml. Tm. e.a. arabera egingo da.

Aldi berean, eta baita ere, euriteak egindako kalteen artean, Lizartzatik Gaztelura doan pistan, Aldatx etxearen inguruan, pista mugitu egin da.

Teknikariak aztertu ondoren, Txosten Geotekniko eta Plano Topografikoen beharra ikusten da, arazoari irtenbide bat bilatzeko.

Guzti horren arabera eta gaiak duen premiagatik, IKERLUR Geologi eta Geoteknia Etxeari, Txosten Geotekniko hori egiteko eskatu zaio, bere kostua, 661.250,- peztatakoa delarik.

Baita ere, Erain Etxeari, inguru hortako Plano Topografikoa egiteko eskatu zaio, bere kostua, 345.000,- pezta izango delarik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, kostu hoién 50%eko diru-laguntza emango du.

KANPOSANTUKO PISTAREN ADJUDIKAZIOA

Kanposantura egin behar den pista berria dela eta, Oruezabal Exkabazioak eta Arrospide Exkabazioak aurkeztutako aurrekontuak aztertu dira.

Era guztietara, eta pista berriak ikuitzen dituen lur-jabe partikularrekin hitzegin ez denez, hauekin hitzegin arte, adjudikazioa atzeratzea, onartu da.

OBISPADUAREN ESKAERA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruz, uztailaren 5eko 1989/12 Foru Arauak, lehenengo xedapen iragankorraren 2. puntuan agintzen duenez, 1.992ko Abenduaren 31ean bukatzen da, Elizak orain artean izan duen mugarik gabeko zerga-salbuespena.

Hala bada eta, aipatu Foru Arauak 4 d) artikuluan dioenez, Ondasun Higiezinaren gaineko zerga-salbuespena eskatzen du, Donostiako Gotzaitegiak, Santa Katalina Parrokiari dagokionean.

Aipatutako Foru Arauak eta legeak aztertu ondoren, eta eskatzen dena bidezkoa denez, Santa Katalina Parrokiaren Ondasun-Higiezinaren gaineko zerga-salbuespena onartzea, erabaki da.

U-1 INDUSTRIALDEKO ABANTZEAREN ONARPENA

1.992ko Uztailaren 23an eginiko Bilkuran, L.K.S. Ingenieritzari adjudikatu zitzaion, U-1 Industrialdeko Plan Partziala, Hirigintza Proiektua eta Repartzelazio Plana egiteko.

Horren arabera, Lizartzako U-1 Industrialdeko Sektoreko Plan Partzialaren Abantzea aurkeztu du, L.K.S.k.

Aztertu ondoren, U-1 Sektoreko Abantzea onartzea erabaki da, bi hilabeteko epean, jendaurrean jarriaz, aztertu eta hala nahi izanez gero, erreklamazioak egiteko.

SIADECOREN ESKOLA TXIKIEI BURUZKO AZTERKETA

SIADECORI Tolosaldeko Herri Txikietako eskolen azterketa egitea agindu zitzaion.

Herri guztiei aurkeztu ondoren, 6 herri izan ginen aurrera egiteko asmotan

azaldu ginenak: Aduna, Alkiza, Berrobi, Zizurkil, Bidegoian eta Lizartza.

Azterketa hau gure eskolen egoera ikusi eta aurrera begira eta erreforma ezartze-atarian gaudela ikusirik gure herrietan gutxienez dagoena mantendu eta 6. mailaraino jartzeko asmoz egina dago.

Ikerketa honek 3 fase ditu. Lehenengoa iadanik eskuartean duguna da. Bertan gure eskolen historia eta gaur egungo egoera aztertzen dira: Ikastetxeen azpiegitura, irakaslegoaren eta ikaslegoaren ezaugarriak, eta herrietako datuak, (batipat kontestu demografikoan).

Azken puntuan: Herri txikietako eskolek azalduko asmoak 2. fasearen lehengo zatia izango litzateke.

Gelditzen direnak 2. fasearen 2. zatia: Herri-txikietako eskola plangintza eta 3. fasea: 2. fasearen plangintza aurrera eramateko baliabideak eta Udalen eginkizuna izango lirateke.

Lehenengo azterketa honen balioa, 500.000,- peztakoa da gutxigora-behera eta gelditzen dena 400.000,- pezta.

Banaketa berriz, erdia herri guztien artean berdin eta beste erdia ikasle kopuruen arabera egingo litzateke. Lehenengo fase hau Lizartzari, 104.417,- pezta kostatu zaio.

Udalbatza honi bigarren eta hirugarren fasea egiteko adostasuna eskatzen zaio.

Adostasun hori ematea, aho batez onartu da.

PINUEN ARAZOA

Gipuzkoako Euskal Baso Elkarteak, Lizartzako hainbat lurjabeen aldarrikapen edo erreibindikazio, bere eginik, Lizartzako Arau Subsidiarioetako 21

Bis artikuluaaren aldaketa eskatuz zuzendutako eskabidea aztertuz gero, Lizartzako Udaleko Baso-Mendi eta Nekazal Batzordeak, ondorengo gogoetak aurkezten ditu, batzarrak eztabaidatu eta dagokion erabakia har dezan.

- 1.- Arau hauek ikuitzen dituen zenbait Lurjabe eta Kontzejalekin, 1.992ko Apirialren 30ean, Lizartzako Udaletxean eginiko bilkuran, oso garbi gelditu zen, beste behin, Batzorde honek etzuela inolako eragozpenik ikusten, arau hauen berrazterketa proposatzeko, 1.990ko abenduaren 13an Baso Elkarteari zuzendutako gutunaren hildotik.
- 2.- Gure harridura haundia izan zen, bilera horretan, nola lurjabeek hala kontzejalek, gutun horren berririk etzutela adierazi zigutenean, Baso Elkarteari expreski hori eskatu zitzaiolako, hau da, horren berri lurjabe guztiei ematea alegia.
- 3.- Luzaro eta zabal hitzegin ondoren, ados gelditu ginan, behar bada, zenbait SAKAN-GUNE, zentzu honetara bideratu daitekeela, eta espirtu hori kontutan izanik, plan serio eta detailatu bat aurkeztuko zutela, 1.990eko gutunako eskakizunetan oinarrituta.
- 4.- Orain egiten duten Arau aldaketa eskaria, 1.990eko Abenduaren 13an, Udal honek, Gipuzkoako Euskal Baso Elkarteari zuzendutako gutunean eginiko eskakizunetan oinarritzen dela dio.
 - A) Azpimarratu nahi da, gutun hartan agertzen zen bezala, Herri baten ordenamendu plana ez dela inoiz, inoren jabetzan oinarritu behar, Herriaren interes orokorretan baizik eta lurra gizartearen zerbitzurako dagoela. Interes pertsonal eta partikularren gainera, alegia.
 - B) Baso Elkartek, arau aldaketak eskatzeko, kontutan dituen, ia ia, arrazoi bakarrak ordea, jabetza eskubideen arlora mugatzen dira. Hau da: Jabetza oinarri hartuaz saiatzen da, bere ustezko kalteak azpimarratzen.

Berrito diogu, abiapuntu hori ez dela zuzena, eta hainbat eta gutxiago Herri baten Arauak egiterakoan. Beraz, eskatzen zenaren guztiz alderantzizkoa dela egin dutena.

Gainera, momentu honetan ez gara sartzen, aipatzen diren datu horiek, zuzenak diren edo ez analizatzera, propietateen arazoa, guztiz korapilatsua gertatzen delako Lizartzan eta Lizartzatarrak, nola jabetza dutenak, hala gainerakoak, konturatuak direlako horretaz, Komunitate Autonomoko Baso Sailak bezala.

Oso garbi dagoena da ordea, Lizartzako zoluan, LAUTATIK/HIRUTAN baino gehiagotan edozein zuhaitz mota landatu daitekela.

- C) Ordenamendu batek, onurak eta kargak, abantailak eta kalteak berarekin ditu. Horien oreka, ahal den neurrian kontutan izanik egiten dira arauak.

Erabilera aldaketa eskatzen den GUNE horretan, landaketari dagokionezko maila batetako murrizketa, posibilitatzen diren eraikuntzek, guztiz eta alde haundiz konpentsatzen dute. Beste bat litzateke, eraikuntzei dagokionezko araua, egokia den ala ez, baina ez da hori, eskuarteko arazoa.

- 5.- Baso jabetzarik gabeko baserririk, agian, ez da egongo. Baina, Arau aldaketa eskatzen dutenen arteko %30 bakarrik (lehenengo sinatzaileen artean ez bigarrengoan, bost bakarrik direlako) da, maila batetan, baserria darabilkitena, eta horietatik, ONENEAN LAU bat bakarrik, baserritik soilik bizi direnak.

Beste guztiak, kaletarrak, kaletar bihurtuak, Auzo herrikoak edo urrutiagokoak dira.

Uste da, xehetasun hauek, nahiko esanguratsuak direla, eta ez dutela

beste komentariorik behar, BASERRITARREN ERRENTEN OSAGARRIAK MUGATZEARI buzu.

- 6.- Kontutan izanik, 1.992ko Bilkuran zenbait jabedun eta kontsejalek elkarrekin hartutako eritzi eta burubideak ez direla batere kontutan izan. Baso Elkarteak bere aldetik, baso-itxukeri huts-hutsean murgilduta aurkitzen dela, aurkeztu duten planoak, bestela, guztiz ulergaitza suertatzen delako.

Guzti honengaitik, Mendi Batzordeak, proposamen hau luzatu du, onartua izan dadin:

- A) Gipuzkoako Euskal Baso Elkarteak, Lizartzako Arau Subsidiarioetako 21 Bis Artikuluaren aldaketa eskaria, egin duen planon arabera ez aintzakotzat hartzea, guztiz zentzugabea delako.
- B) 1.992ko Apirilean eginiko Bilkuran, elkarrekin hartutako erizpideen arabera eginiko Planteamendua aztertzeko prest aurkitzen dela Udal Batza hau adieraztea.
- C) Gipuzkoako Euskal Baso Elkarteari Udal honek bere kexa agertzea, 1.990ko Abenduan zuzendu zitzaion gutunaren berri, bere defendituei eman etzielako, nahiz eta expreski horrela eskatu.
- D) 1.990ko Abenduaren 13an Baso Elkarteari zuzendutako gutuna, AKTETAN sartzeko konstantzi hobea izateko.

Alkateak hitza harturik, benetan tamalgarria dela adierazten du, gertatzen ari dena.

Arauen aldaketa garrantzitsu bat eskatu eta plenoan tratatu behar denean, proposatu dutenen aldetik inortxo ere ez azaltzea.

Ez jabedunik ez kontzejalik, ez Baso Elkartekorik, horrelako eskari baten aurrean, eta plenoan hitzegin behar denean, logikoena azaldu eta eztabaidatzea

dela dio. Beren arrazoiak, hobekien berak defendatuko dituztela eta hainbat eta gehiago, gauzak aztertzeko dugun gure disposizio ona ikusita.

Mendi Batzordekoak esaten du, kontzejal hoiek batzorde hontara ez direla azaldu ere egiten, nahiz eta izena emanda egon.

Nola Arau aldaketarako eskariaren arrazoiak eta planoak, hala Mendi Batzordearen txostena aztertuz gero, Mendi Batzordearen proposamena onartzea erabaki da.

Mendi Batzordeak proposatu eta Udal Batzak onartu bezala, ondoren 1.990ko Abenduaren 13an Baso Elkarteari zuzendutako gutuna transkribatzen da:

GAIA: Gipuzkoako Euskal Baso Elkartek, Herriak eta HERRITAR EZ diren zenbait sinadurekin, Lizartzako Arau Subsidiarioetako 21 Bis, 22 eta 23 artikulok ALDATU eta INDARGABETZEA eskatuz, luzatutako gutunari erantzuna.

ZENBAIT GOGOETA

Herri bat, bere lurralde definitu batek, eta bertan bizi den giza multzoak osatzen dute.

Giza multzo horrek, maila xume batetan izanik ere, badu ahalmenik, bere lurraldearen antolakuntzan, hau da, bere bizilekua, garaiari dagokion, egokieran eratzeko edo eta jartzeko, ondorengoena, inoiz, ahaztu gabe. Eginkizun edo betekizun garrantzizko hau, aldiz, Herritar guztiena da.

Errealitatean edo praktikan, Lizartza bezalako herriak, Arau Subsidiarioak, deritzaien figura urbanistikoaren arabera erregulatzen dira.

Araudi honetan, eraikitzen jarraitu nahi den herria zer nolakoa izatea nahi den, NON, ZER eta NOLA, bai etxebizitzetarako buruz, edo eta Industrigintzari, Nekazaritzari, Baso eta Mendiei, Ingurugiroari etabar etabar, neurriak ezartzen

dira.

Bere osotasun guztian hartzen da Herria, jabetza edo propietateak kontutan hartu gabe, zer behar den eta nahi den, ikusi, aztertu, arrazoitu eta jakin ondoren, izendatzen da bakoitzetarako den lurrik egokiena.

Ta hemen sortzen dira eztabaidak eta ixtiluak.

Behar sozialak, hau da, herri interesak, interes partikularrekiko nahiko ez direla, arlo ezberdinetako interes pertsonalak ere, elkar topo egiten dute askotan. Arlo partikular bakoitzak, bere sektorearen alde jotzen du, eta elkarren arteko oreka sortzen, ez da izaten beti erraza.

Hastapen edo printzipio bat bada ordea, oso garbi dagoena: LURRA, gizartearen zerbitzurako dagoela, interes pertsonal eta partikularren gainetik alegia.

Jabetzak aldiz, hastapenez, dana nahi izaten du, eta dana ez badu, kalteak bakarrik ikusten ditu, onurik inoiz ez. Arauen ikuspegia ezberdina izan daiteke, etekinen balorazioa bezala.

GUTUNAREN HUTSARTEAK EDO HUTSARTE HUTSA

Gutun eskariaren irakurketak, bat bateko galdera pila bat, sortzen du, irakurlearengan.

- Zergaitik ? Hau da: Ze arrazoitan oinarritzen dira eskari hau egiteko ? Ez da inondik ageri.
- Nola eta nondik begiratuta analizatu dituzte Lizartzako Arau Subsidiarioak ? Ezkutoki edo misterio bat da. (Guretzat).
- Ondorengoei, zer nolako Herria eta Ingurugiroa utzi behar diegu, pentsatzen jarri ote dira ? EZ DA POSIBLE.

- Egungo araudiak zer onura eskeintzen dizkien ikusi ote dute ? Sinesgaitza benetan.
- Eskuarlean dituzten arauen onurak, eta eskatzen duten aprobetxamendua, elkar ezkontzeko burutapenak ote darabiltzkie ? Elkarren aurkakoak dira (Guretzat).
- Herriaren bihotzean, kalearen erdian, pinua sartzeko eskubidea edukitzeko eskaria egitea, ze burutan sartzen da ? Gurean behintzat ez.
- 12,5 km²-tik, 9,50 km² pinua sartzeko aukera ematen diete, egun indarrean dauden Lizartzako Arau Subsidiarioak, hau da LAUTATIK, HIRU. Xehetasun honek, oraindik ulergaitzagoa egiten du eskari hau.
- Lizartza guzti guztia, hau da, 12,5 km² pinudi posible bihurtu behar dugu ? Bere izurriteak hondatuko gaitu.
- Sute batek ekar lezazken negargarritzaz jabetu ote dira? Ez dugu uste.
- Nor egingo litzateke kalteen kargu ? Udala ? Foru Aldundia ? Gasteizko Gobernuak ? Estatua ? edo Partikularra ?.
- Ze aseguru ordaintzea behartu beharko litzateke ?.
- Eta NEKAZARITZA ZER ? Diskriminatuta jarraitu beharko du.
- NOLA ULERTZEN DIRA HAUEN ESKUBIDEA PINUZALEEN NAHIEKIN?
-
- Ez al dago eredu edo ejemplo franko, LIZARTZAN, DISKRIMINAZIOAK garbi ikusteko ? Guretzat bai.
- Zer axola zaie, ondasun bat bezala Lizartzan baserriak dituzten kanpotarrei, dana pinua sartuta ere ? EREDUAK badaude, eta arriskuan, gehiegi zoritxarrez.

- Nola zaintzen dira Nekazaritza Sailean, lan egin nahi duenaren eskubideak, bi metrotara pinua sartuta ? Dirudenez 6 metro gehiegi dira uzteko.
- Galdera pila bat gelditzen da egiteko, baina, gehiegizkoa derizkiogu, danak hemen jartzea. Gizartearekikoak eta Ekologikoak, ia ia, ez bait ditugu aipatu.

ONDORIOAK

Pentsatzen dugu, onezkero konturatuak izango zaretela, Lizartzako Arau Subsidiarioak, galdera guzti hauek eta falta diran beste asko, luze, zabal eta sakonki aztertu eta eztabaidatu ondoren, eginak, eta tramitapen latz bat, jasan ondoren, onartuak izan zirela.

Serietate falta, izugarri eta beldurgarria, nabaritzen dugu ordea, eskakizun horretan, lehen esan dugun bezala, ez bait zarete, batere saiatu, ezta, pixka pixka bat ere, zuen eskaria, inungo arrazoietan oinarritzen. GAIA aldiz, bene benetan, serioa dela derizkiogu, txantxetan, edo eta, hartu duzuen bezain arin, hartzeko. Lizartzako Herriaren izatea jokatzeko delako.

Azken ia hamabi urte hauetan, ez dugu, horren gutun eskaera axial, xeble eta sakontasun gutxikorik jaso, Udal honetan, gaia, hain transzendentala izanik, Lizartzarentzako. Inori ez bai zaio, burutik pasatzen, zergaitik eta zertarako arrazoitu gabe, eta kasu honetan, benetan sakonki arrazoitu gabe, egin den bezelako eskari bat egitea.

Lizartzako Udala, beti egon da, eta dago prest, EDONORREKIN, arrazoituz, gauzak eztabaidatzeko. Ez du INOREN beldurrik, eta arrazoi batengaitik: HOBETO dagoen gauza bat, errekonozitzeko, IKARIK ez duelako, zuzenketak egiteko alegia.

Hori bai, eta aurrez esaten dizuegu, arrazoi sakon, sendo eta mardulak

eskatzen ditugu. Arras xehetuak, garbi jarriak, eskariaren ondorio guztiak tinko aztertuta eta plan konkreto bat gauzatuta.

Ordu asko eta asko pasa zen, bazterrak ahal zen ondoena miatzen, jendeak etekinik onena izan zezan, herri eskubideak, aldi berean, ahal zen egokiena errespetatuz.

Horregaitik, ez gaude prest, inon oinarritu eta arrazoitu gabeko, aldaketa eskari bat, berrikusten hasteko, nondik heldurik ez edukitzeak, denbora galtzea, suposatzen duelako.

GUZTIAGATIK

Plan xehetua, hau da detailatua, konkretoa eta arrazoitua eskatzen du Udal honek, Arau Subsidiarioetako 21 Bis, 22 eta 23 artikulua berrikusten hasteko. Txepetxaren ikasgaia ondo ikasitakoa, sartzera, nondik atera behar dugun, jakitun egon da, alegia.

Lizartzako Gizartearekiko gaurko eta biharko erantzunkizuna bizkarrean hartuta eginiko plana, eta sektore ezberdinetako interesak ongi uztartuko dituen. Hitz gutxitan esan da: Zein motatako Herria eraiki nahi dugun, ongi eta garbi, herriaren aurrean azaltzeko moduko plana. Bera izango baita, azken hitzaren jabe.

OHAR GARRANTZIZKOA

Bien bitartean eta inolako interpretapen okerrik egon ez dadin, garbi utzi nahi dugu, eta horrela sinatzaile guztiei eta BAKOITZARI adieraztea eskatzen dizuegu, aldaketarik ez dagoen bitartean, ONARTUTAKO ARAUAK DIRELA INDARREAN JARRAITZEN DUTENAK, eta DANOK gaudela, berak betetzea eta betearaztea behartuta.

EZ NEKIAN, USTE NUEN, aitzakiak, askotan erabili ohi dira gure artean, eta ez genuke nahi, sinatzaile hauek, horrelakorekin etortzerik, eta betekizun hau, Elkarte horren eginkizuna dela derizkiogu, beraz erantzunkizuna, eskuartean dugun eskaria, bere bidez, bideratu delako.

ASKAPENAREN MOZIOA

Gerra haizeak planetan barna dabilta. Batzu gutxien interes izkutuek baino ezerk gehiago justifikatzen ez dituen gerrak. Tonaka harma sofistikatu egiten, saltzen eta erabiltzen den bitartean, "hirugarren mundu" deituriko horretan milaka, milioika lagun, gosez, miseriaz eta ardura ezagatik hiltzen da egunero. Heriotza eta sufrimendua beti herrientzat, txikientzat, txiroenentzat ... Hau negozioa, harma saltzaileena !!

Balkanak, Palestina, Irak ... Nazioarteko Orde Berriak "munduaren jabe" berriek informazioa manipulatu eta gezurren bidez, istiluak luzatu egiten dituzten, benetako irtenbideak ematen galera dutenean. Zergatik Nazio Batuen erabakiak ez dira Serbian eta Israelen ere betetzea behartzen ?. Estatu Batuen eta bere Europako aliatuen jarrerak O.N.U. inperialismo eta gerraren txontxongilo morroia bihurtu du.

Guk ASKAPENA, munduko herrien arteko elkartasunerako euskal erakundea, eta gure lan internazionalistak sorturiko ikuspuntutik, Udal honi, injustizia, gosea eta gerra pairatzen ari diren herri hauekiko ELKARTASUNA adieraz dezan eskatzen diogu, HERRIEN AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA eta ELKARRIZKETA eta NEGOZIAZIOA istilu hauei legezko irteera emateko bideak bezala onartuaz.

Askapenak (Herriekiko Euskal Elkartasunak) aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

GURUTZE GORRIAREN MANIFESTUA

Berdintasuna da Demokrazia

Berdintasuna, askatasuna eta solidaritatea defendatuz bat eginik. Pertsona gisa, emakume-gizon guztiok berdinak garela eta, izaki libre gisa, ezberdintasunerako eskubidea dugula sinesbeterik. **ALDARRIKATU EGITEN DUGU** ezberdintasunarekiko begirunea, berdintasun, askatasun eta aniztasun

horretatik abiatuz, gure jokabide solidarioaren eta edozein ekintza baikor, integratzaile eta ez-diskriminatzailearen oinarri gisa. GEUREAK EGITEN DITUGU, beraz, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Paktuan eta Ekonomia, Gizarte eta Kultur Eskubideei buruzko Paktuan kontsokratutako edukinak. Testu hauetan bildutako jokabide kode unibertsala da gizaki orok izan behar duen demokrazia, konbibentzia, ongizatea eta elkarrekiko begirunea garantizatzen duena. Printzipio hauek, nazioarteko komunitatea osatzen duten Estatu gehienek bere gain hartu dituztenek, espainiar Estatuko emakumezko eta gizonezko hiritarrak ere behartzen ditu. Balore hauen izpiritua eta letra Espainiako Konstituzioaren 13. eta 14. artikuluetan jasota azaltzen dira, emakumezkoek eta gizonezkoek legearen aurrean duten berdintasuna ezarriz, jaiotze, arraza, erlijio, iritzi edo beste ezein arrazoirengatik diskriminaziorik gabe, minusbaliatasuna edo sexu joera kasu, hala nola atzerritarren eta errefuxiatuenganako beharrezko eskuzabaltasun instituzionala eta soziala. KOHERENTEAK izaki, ondorioz, gizaki garen heinean ditugun konbikzio eta betebeharrekin, KONPROMISUA HARTZEN DUGU jendaurrean "Berdintasuna da Demokrazia" kanpainarekiko, edozein joakera diskriminatzailearen aurka elkarrekin borrokatzeko eta benetako balore demokratikoen aurka, ezberdintasunak ukatuz, giza eskubideak urratzen direla pertsona nahiz erakunde guztiei ulertarazteko.

Bizitzeko berdintasuna, Elkarbizitzeko aniztasuna.

Gurutze Gorriak aurkeztutako "Berdintasuna da Demokrazia" manifestuari atxekitzea, aho batez erabaki da.

EMAKUNDEREN MOZIOA

Nazioarteko zenbait erakundek, hala nola NBEk eta EEEk, egiaztatu dutenez, Jugoslavia zenean emakumeen bortxaketa sistematikoak gertatzen ari dira. Europako Legebiltzarrak argi eta garbi gaitzetsi zituen gertaerok 1.992ko Abenduaren 17ko erabakiaren bitartez. Bestalde, otsailaren 7an Emakumeen Nazioarteko Batzarrea izan zen Zagreb-en (Kroazia) eta bertan ekintza hauen aho bateko salaketa -batez ere erakundeei-, eragitea, erantzunkizuna galdatzea eta emakume horiek behar duten psikologi eta ginekologi sorospena izan dezaten

laguntza zehatzak nola bideratu daitezkeen aztertzea proposatu zen. Emakundeko ordezkariak batzarre horretan izan ziren, eta horregatik erakunde honek udalbatza horri, dagokion modu eta eran, honako erabaki hau har dezan eskatzen dio:

- 1.- Lizartzako Udalbatzarrak, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak hala eskaturik, Jugoslavia zenean gerra taktikaz egiten ari diren emakumeen -batez ere musulman bosniarren- bortxaketak argi eta garbi gaitzesten ditu eta Ginebrako Ituneko 27. atala, bortxaketak eragin zein egiten dituztenak gerra-kriminaltzat kondenatzen dituena, zeharo eta zorrozki bete dadin galdatzen du.
- 2.- Hala berean, eta bere aurrekontuak aukera ematen dion neurrian, Udala honek parte hartuko du zuzenean emakume horiei psikologi eta ginekologi laguntza emateko egitasmo zehatzak gauzatu daitezen EMAKUNDEK eragingo duen diru-bilketan, dirua emanaz edota biltzen lagunduz.

EMAKUNDEK aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

ELA, CCOO ETA LAB ERAKUNDE SINDIKALEK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Alkateak, hitza harturik dio: Bilkurako deia zabaldu ondoren, Euskal Herria osoak jasaten duen krisi ekonomiko larriari buruzko mozioa aurkeztu dute, Ela, Ccoo eta Lab sindikatuek.

Benetan gaiak garrantzi handia duenez, Bilkura honetan, urjentziz gai hau tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

ELA, CCOO eta LAB erakunde sindikalek Euskal Herria osoak jasaten duen krisi ekonomiko larriak sortuzten dien kezka adierazi nahi dio Udalbatzari, krisi horrek oso zuzenki eragiten diolarik gure eskualde eta herriari. Horren froga dira datu kezkarri hauek: Eskualdeko langabetu kopurua, eskualdeko enpresarik garrantzitsuenei eragin dien mota guztietako espediente kopurua eta, horien

ondorioz, tailer txiki-ertainei.

Krisi hori, hasera batetan gure industriari erasotzen diona, asko ari zaie eragiten gainontzeko aktibitate ekonomikoari, eta adierazteko modurik gogorrena du gure herrian lanpostua galdu duten edo enplegu bat aurkitzen ez duen biztanle kopuruan. Egoera horrek gehiago eragiten ditu gazteak eta emakumeak. Hala ere, ezin ditugu ahaztu, hainbat urte lan gogorretan aritu ondoren, gaur egun kalean dauden langileak, birkokatzeko zailtasun handiekin eta prestazio edo subsidio minimoetarako eskubidea besterik ez dutelarik.

Gaur egungo egoera dramatikoak dela egia izanda ere, gure herri eta eskualdeko etorkizuna okerragoa izan daiteke, gainbehera gelditu eta lehenbaitlehen konponketarako prozesu iraunkor bat hasten ez badugu. Presazkoa da, beraz, berreskurapen ekonomiko eta enpleguaren hazkunderako helburu hori instituzioen eta agente ekonomiko eta sozialen arduren eta ekintzaren lehenengo tokian kokatzea.

Guzti horregaitik, ELA, CCOO eta LAB erakunde sindikalek Udalbatz horri aurkezten diogu kontutuan izan dezan eta, kasua bada, onar dezan, ondorengo

AKORDIO PROPOSAMENA

- 1.- Lizartzako Udala bat dator herri honi eragiten dion krisi industrial, ekonomia kaltetze eta enplegu galera larriaren ondorioz gaoian agertzen diren erakunde sindikalek adierazitako kezkekin.
- 2.- Lizartzako Udalak uste du beharrezkoa dela gure sare ekonomikoa, industrialak batez ere, defendatuko duen politika bat, 80% batetan papergintzaren inguruan mugitzen dena, beste alternatibarik ez dagoen bitartean hori hobetzea eta aldatzea bultzatu eta bideratuko duena, eta biztanle guztiek bere lanaren bidez etorkizun duhin bat ziurtatzeko duen eskubidea posible eta benetako egingo duena.
- 3.- Lizartzako Udalak bere laguntza eskaintzen dio ELA, CCOO eta LABek

enpleguaren arazoaren inguruan daramaten kontzientziazio eta sentsibilizazio prozesuari, bai eta aipatu sindikatuak batera erabakitako ekinbide proposamenei ere, eta hiritarrak deitzen ditu larunbatean, Martxoak 27, eguerdiko 12tan, Tolosako Trianguloan egingo den manifestazioarekin bat etortzera.

ELA, CCOO eta LAB-ek aurkeztutako proposamena, aho batez onartu da.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

Udaleko Arkitektoa den PILAR AMENABAR ZABALA Andreari, Lizartzako Udaletxeko Eraberritze Proiektuaren Osagarri den Sendotze Estrukturalaren eta Obra Deribatuen Eranskina egiteko eta Obra Zuzendaritzaren Ardura enkargatzea.

Lizartzako Udaletxeko Eraberritze Proiektuaren Osagarria den Sendotze Estrukturalaren eta Obra Deribatuen Eranskinean, Aparejadore lanak burutzeko, IMANOL IRIBAR IRASTORZA Jauna izendatzea.

ESTANIS AGIRRE ZABALA Jaunari, Zumitza Baserrian, Teilatua bitarteko fatxada egiteko eta leiho berriak irekitzeko baimenik ez zaio ematen, obra horrek estrukturalaren aldaketa bat suposatzen duenez, proiektua aurkeztu behar duelako.

INSALUS-i Lizartzan daukan almatzenaren sarrera obrak egiteko baimena eman zaio.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, ilunabarreko bederatiak laurdenagutxiago direnean.